

2019/09/16

A111. KAZETARITZA

BIGARREN ARIKETA
Denbora, gehienez: 120 minutu.

Ez ireki galdera-orriak esan arte, eta irakur itzazu arretaz orri honetako jarraibideak.

- **Mugikorrak itzalita** eduki behar dira, eta mahaitik kanpo, baita erlojuak, jarduera-eskumuturrekoak eta antzekoak ere. Ur botilak, estutxeak eta antzekoak eskura eduki daitezke, baina ez mahaiaren gainean.
- Aretoan erlojurik ez badago, ahoz jakinaraziko da zenbat denbora falta den proba bukatzeko: 60, 30, 15, 10 eta 5 minutu geratzen direnean, eta azken minutuan.
- Mahaiaren gainean hauek besterik ezin izango dira eduki: galdera-orriak, identifikazio-orria, NANA eta boligrafoa (urdina edo beltza). Ezin da erabili kolorezko errotuladorerik; bai, ordea, TIPEX® edo antzekorik.
- Epaimahaiak **irakurtzeko moduko idazkera** erabili behar da ariketan.
- GAKOA duen **identifikazio-orria** eman badizute, jar itzazu datu hauek: NAN zenbakia, izena, abizenak eta probaren kodea/izena.
- **Idatz ezazu GAKOA** erabiltzen dituzun **erantzun-orrietan**. EZ ezazu idatzi izenik edo NAN zenbakirik orrian, ezta sinatu ere, EZ ZUZENTZEKO arrazoaia baita. Orriaren bi aldeak erabili. Orriei jarri zenbakiak, ez orrialdeei.
- Identifikazio-orria probaren lehen minutuak igaro ondoren jasoko da.
- **Bertaratze-ziurtagiria** nahi baduzu, eska ezazu presentzia-kontrola egiten den unean.
- Erantzun labur eta zehatzak eman behar dira. Aldez aurretik zehaztuta daude zuzenketa-irizpideak. Galdera bakoitzaren gehieneko balorazioa enuntziatuan bertan adierazten da.
- Denbora agortu aurretik bukatzen baduzu, altxa eskua erantzun-orriak har diezazkizuten. Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.
- Ez ahaztu erantzun-orri guztietan adieraztea:
 - **LEP kodea (A111)**
 - Identifikazio-**gakoa**
 - **Orri-zenbakia** / erabilitako orriak, **guztira**
- Goiburuaren adibidea:

COPE	Zuzentzeko kodea	Kasu praktikoa	Orria / orriak, guztira
A-111	OP9999ZZZZZ	1	1 / 4
A-111	OP9999ZZZZZ	1	2 / 4
A-111	OP9999ZZZZZ	1	3 / 4
A-111	OP9999ZZZZZ	1	4 / 4

Eskerririk asko zure laguntzagatik

AURKEZPENA

Komunikazio Zerbitzuko lantaldeak blog bat dauka, WordPressen, Udalaren eguneroko jardunaren inguruko informazio publikoa argitaratzeko —nagusiki hedabideei zuzendutako informazioa—. Bestalde, herritar guztiengana zabaltzeko, berriak argitaratzen ditu Udalaren webgunean, blogean argitaratutako prentsa-oharretatik aterata informazioa, eta sare sozialak kudeatzen. Bloga orobat dago eskuragarri Udalaren webguneako ‘Prentsa-aretoa’ atalean, eta haren edukien artean indexatzen da.

Komunikazio Zerbitzuko kazetaria zeren aldetik, eta Jabetze Feministarako Eskolaren aurkezpena dela eta (testua eransten da), egiteko hauek landu ditzazula eskatzen zaizu:

1. egitekoa: (10 puntu)

Erantsitako testua abiapuntutzat hartuta, idatz ezazu berri labur bat, euskaraz eta gaztelaniaz, Udalaren webgunean argitaratzeko, Jabetze Feministarako Eskolari zabal-kundea ematea helburu duzularik. (Gehienez orrialde bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz)

2. egitekoa: (10 puntu)

Justifika itzazu berria idazterakoan kontuan izan dituzun alderdiak, eta adieraz itzazu berria argitaratzeko kontuan hartu beharreko baliabide informatiboak.

3. egitekoa: (10 puntu)

Udalaren hedabide sozialen kudeatzailea zaren aldetik, Jabetze Feministarako Eskolaren zabalkundearen inguruko zein alderdi kontuan hartu beharko dituzu sare sozialetako kontuen argitalpen-planean eta ebaluazioan.

Anexo: Texto Nota de Prensa.

<p>Urriari ekingo dio berriz jarduerari Jabetze Feministarako Eskolak, arreta desberdintasun-iturri guztiei egingo dielarik. Berdintasuneko zinegotzia Miren Fernández de Landak eta Alkatetzako zuzendari Estitxu Peredak aurkeztu dute gaur goizean Etxanobe jauregian bederatzigarren edizioko egitaraua, zeinean, ohiko hitzaldien eskaintzaz gain, zenbait berrikuntza dauden; horien artean nabarmentzekoak dira Florida zinemetako zine-forum ziklo berreskuratua eta antzerkiaren eta dokumentalen aldeko apustua. Ikasturtearen inaugurazioa irailaren 20an izango da, 19:00etan, Pamela Palencianoren <i>No sólo duelen los golpes</i> monologoaren eskutik.</p> <p>Berriro izango da aurten ere 10 eta 18 urte bitarteko pertsonentzako #FeminismoanItzel eskola. Bigarren urte honetan, finkatu egin da prestakuntza-programazio hori, zein, gainera, herritarren ekimenez sortua baita.</p> <p><i>“Generoaz gain, badira beste desberdintasun-iturri egiturazko batzuk, esaterako testuinguru kulturala, adina, aniztasun funtzionala eta mentala, eta sexu-orientazioa eta genero-identitatea; horiek ez dira faktore biologikoak, baizik eta gizakiok sozialki eraikiak. Horiek duen eraginari erreparatu ezean, muzin egingo diogu ahulezia-maila handiago baten menpe dagoen pertsona askoren egoerari. Desberdintasun-iturri diren ardatz jakin batzuk zeharkatutako gizatalde zenbaiten errealitate ezagutzea... horixe da lehen begiratuan dirudiena baino askoz jende gehiagok beren eskubideek murriztuta dituztela ohartarazteko eta horren gaineko kontzientzia hartzeko lehen urratsa”, azpimarratu du Miren Fernández de Landa zinegotziak.</i></p>	<p>La Escuela para el Empoderamiento Feminista retomará a principios de octubre su actividad con la mirada puesta en todas las fuentes de desigualdad. La concejala de Igualdad, Miren Fernández de Landa y la directora de Alcaldía, Estitxu Pereda, han dado a conocer esta mañana en el Palacio Etxanobe la programación para el nuevo curso que refuerza en su novena edición la oferta de conferencias, retoma el ciclo de cinefórum en los cines Florida y apuesta por el teatro y los documentales, entre sus principales novedades. La inauguración del curso tendrá lugar el 20 de septiembre, a las 19:00 horas en el Palacio Europa con el monólogo “No sólo duelen los golpes” de Pamela Palenciano.</p> <p>También regresa este curso la Escuela para personas de 10 a 18 años “Feminismo Mola” que afianza, en su segundo año, esta nueva vía de formación en la ciudad, propuesta además por iniciativa ciudadana.</p> <p><i>“Además del género existen otras fuentes estructurales de desigualdad, como el contexto cultural, la edad, la diversidad funcional y mental o la orientación sexual y la identidad de género que, lejos de ser biológicas, construimos socialmente. De no reparar en su impacto, pasaremos por alto la situación de muchas personas que en nuestro entorno más cercano están expuestas a mayor vulnerabilidad. Evidenciar y conocer las realidades de diversos grupos atravesados por varios ejes generadores de desigualdad es el primer paso para tomar conciencia de que muchas más personas de las que parece a simple vista tienen mermado el ejercicio de sus derechos de ciudadanía”, ha destacado la concejala Miren Fernández de Landa.</i></p>
---	--

<p>Helburu hori jomugan, Eskolak Indiako feminismoari eta afrofeminismoei begiratuko die, baita sexu- eta genero-identitatearen alde Guatemalan gauzatzen ari den borrokari, eta ijitoen arteko identitate interseksionalei ere. Horratuko den beste gai bat eromenaren eraikuntza historiko eta kulturala da, horren bidez ulertzen saiatzeko zergatik zenbait nahasmendu gehiago diagnostikatzen den emakumeen artean gizonezkoengan baino. Halaber, Eskolak nabarmendu nahi du nola baldintzatzen dien zahartzaroa –okerrerako baldintzatu ere– emakumeek beren bizitza-ibilbideetan dituzten genero-rolak. Guztira, Berdintasun Zerbitzuak kudeatzen duen Eskola honek 70 jarduera baino gehiago programatu ditu, azarotik ekainera bitartean.</p> <p>Jabetze Feministarako Eskola jadanik sendotuta dagoen erreferentziazko zentroa da Gasteizen, eta hazten jarraitzen du. Iaz 73 jarduera egin ziren, aurreko urtean baino 6 gehiago. Lehen aldiz 10 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteentzako jarduerak antolatu ditu Gasteizko Jabetze Feministarako Eskolak. Lehen edizio horretan 130 adingabek eta familiak hartu zuten parte, jarduera-ildo horri etorkizun oparoa iragartzen dion hasiera.</p> <p>Gainera, Eskolak espazio berri bat izan zuen: Etxanobe jauregia. Bertan egin ziren jarduera gehienak eta, laster, Sorginenea Emakumeen Etxea proiektuarekin partekatuko du gune hori.</p> <p>Iazko beste berrikuntza bat izen-aldaketa izan da; orain Jabetze Feministarako Eskola du izena, zerbitzuaren udal politikek duten ikuspegia azpimarratze aldera.</p>	<p>Con ese objetivo, la Escuela acoge este curso actividades sobre los movimientos de mujeres en la India y los afrofeminismos, sobre las luchas por la identidad sexual y de género en Guatemala y sobre las identidades interseccionales en el Pueblo Gitano. También repasa en la construcción histórica y cultural de la locura, para tratar de entender por qué se diagnostica a las mujeres en mayor medida de determinados trastornos. Asimismo, la Escuela evidencia cómo los roles de género desempeñados por ellas en sus cursos vitales condicionan negativamente su situación en la vejez, entre otras propuestas. En total, la Escuela gestionada por el Servicio de Igualdad ofertará más de 70 actividades desde noviembre a junio.</p> <p>La Escuela para el Empoderamiento Feminista es un centro de referencia ya consolidado en Vitoria-Gasteiz y sigue creciendo. El curso pasado se desarrollaron 73 actividades, 6 más que el año anterior. Por primera vez, la Escuela para el Empoderamiento Feminista en Vitoria-Gasteiz incluyó actividades para niños y niñas y jóvenes, de 10 a 18 años. En su primer curso, participaron 130 menores y familias, siendo un comienzo prometedor para esta línea de actividades.</p> <p>Además, la Escuela contó con un nuevo espacio: el palacio Etxanobe, donde se realizaron la mayoría de las actividades y que en breve compartirá espacio con la Casa de las Mujeres Sorginenea.</p> <p>Otra de las novedades del pasado curso fue el cambio de nombre, a Escuela de Empoderamiento Feminista, que marca el foco que desde el servicio se está poniendo en las políticas municipales.</p>
---	--

<p><i>Eskolaren helburua transbertsaltasuna eta aniztasuna lantzea da ahalik eta ikuspuntu gehienetatik, pertsona ororen identitateak ulertu eta konprenituz eta horrek dakartzan desparekotasunak identifikatuz; interseksionaltasuna analisi-tresnatzat hartzea sarri gure gizartean nagusi den homogeneizaziotik urruntzeko. Hori dela eta, kolektibo zehatzekin egin da lan: buruko gaixotasunak dituzten emakumeak, desgaitasun intelektualak dituzten emakumeak, desgaitasun funtzionalak dituzten emakumeak, LGTBI gaiak, emakume musulmanak eta emakume ijitoak, esan du Estitxu Peredak.</i></p> <p>Eskolaren indarguneetako bat da Gasteizko gizarte-kolektiboekin eta mugimendu feministarekin lanean eta lankidetzan jorratzen duela proiektua, hain zuzen ere, 20 bat kolektibo eta elkarterekin.</p> <p>Komunikazio Zerbitzua / Servicio de Comunicación — 16 iraila 2019</p>	<p><i>“La Escuela apuesta por trabajar la transversalidad y la diversidad desde todos los enfoques posibles, entendiendo y comprendiendo las múltiples identidades de todas las personas, identificando las desigualdades que ello implica y apostando por la interseccionalidad como una herramienta de análisis que nos haga huir de la homogeneización que a menudo impera en nuestra sociedad. Por ello se ha trabajado con colectivos concretos como mujeres con enfermedad mental, mujeres con discapacidad intelectual, mujeres con discapacidad funcional, mujeres racializadas, temática lgtbi, mujeres musulmanas y mujeres gitanas”, ha explicado Estitxu Pereda.</i></p> <p>Uno de los puntos fuertes de la Escuela es trabajar y colaborar con los colectivos sociales y del movimiento feminista de Vitoria-Gasteiz, colaborando con una veintena de colectivos y asociaciones.</p> <p>Servicio de Comunicación — 16 septiembre 2019</p>
---	--